

Harmailetatik begira
Espainiako Lehen Maila

Gora Helenio Herrera?

Athleticek hamarrek irabazi zuen, baina Fernandezek 11 zelairatu zituen badaezpada

Enekoitz Esnaola

ATHLETICEN azken partidua dela eta Helenio Herrerak arrazoia duela esaten entzun, eta:

— «Zein duk Helenio delako hori? Zer zioz ba berak?», galdetu du estralurtar batek.

— «Ez dakizula zein den H.H.? Hik ez dakik futbolaz deus. Ez haiz mundu honetakoa», ihardeusi dio harritia futbol zale batek.

— «Baina zer zioz H.H. horrek?».

— «Begira: H.H. delakoa, besteak beste, entrenatzailea izandakoa duk, eta behin ba al dakik zer esan zian? Ba hamar jokalarirekin hobeto jokatzeko dela. Entenditzen?».

Pentsakor geratu zaio une batez bestea, eta berehala:

— «De dio! Horrela al duk, e? Hamarrek hobeto, e?», esan du jada estralurtar izateari utzi diotak, ondoren zera xuxurlatuz futbolero-futboleroari: «Hi, sekretu bat: edukiko duk telefono mugikorren bat, ezta? Bai, izango duk, hori ere eduki beharra duelako batek mundu honetakoa baldin baduk behintzat. Beraz, derrepente dei iezaiek Iruretari eta Luis Fernandezi, eta hauxe esan: beti-beti hamar jokalarirekin jokatzeko. Baina beti-beti, e? Hi, eta hau aholkatzeagatik, komisio txiki bat ere ez zaidala gaizki etorriko esatek. Igoal zaiok komisioa legezkoa ez baldin bada ere. Mundu honetakoa izateko behar den hirugarren ezaugarria duk hori, motel».

Futbolero-futboleroa pentsakor gelditu da, komisioarena ez dela ideia txarra pentsatuz eta telefono mugikorra segituan erosi behar duela esanez bere poltsikoari, baina Jabori eta Luisi deitza txorrada galanta dela pentsatu du, zeren bai, Helenio Herrerak esan zuen hamarrek hobeto jokatzeko dela, baina hori esan, behin esango zuen, eta justu hamarrek geratu eta, hala ere, irabazi egin zuenean partidua. Baina gertatzen dena zera

da: kazetariak kontestuairen kazolan buruntzia sartu eta «Helenio Herrerak arrazoia: hamarrek hobeto jokatzeko da» esana atera eta esaldien artxiboan kokatzen dutela, nahi denean erabili ahal izateko. Esaterako, herenegun: Athletic hamar jokalarirekin geratu zen 0-1 zihola, baina azkenean 3-2 irabazi. Eta orduan Athleticek 2-3 galdu izan balu esango ez zen esaldia esan batzuek: «Helenio Herrerak arrazoia: hamarrek hobeto jokatzeko omen da».


Hala baldin bada, jokatu beti hamarrek. Eta jokalaritza kentzekotan, kendu Athleticek

Guerrero. Izan ere, konturatu al zarete Julenek deskuidatuta ere ez duela golik egiten? Alea gertatzen ari zaio: Betisen aurka gehiegi gurutzatu zuen bakar-bakarrik zegoenean, eta herenegun atearen aurre-aurrean ondoan bere itzala baino ez zuenean jaurtiketa txarra... eta 3-2ko pase mundiala Jose Mariri. Meritua du galanta Athleticek. Arrisku-tua litzateke lehen bi partidua galtzen hastea. Guztiek diote iazkoa ahaztu egin behar dela, baina denek dute buruan iazkoa.

Iruretari, berriz, ez esan hamarrek jokatzeko. Honek dituen guztiak aprobetxatu nahi ditu,

jakina. Larunbatean gizon hauekin bukatu zuen partidua: lau atzelarirekin, eta Albistegi, Gomez, Mild eta Imazekin, eta Idiakezekin eta De Pedroekin. Igoal historiako ekiporik defentsiboenak. Beno, igoal ez. Behin Toshack-ek Lleidan defentsibo-defentsiboa erabili zuen. Toshack-ek, ordea, hasieratik, eta Iruretak bukaeran. Irundarrak aurretik Kovacevic, Luis Perez eta Mutiu atera zituen, eta hiru hauen —eta Fuentesen— artean egin zuten goleko jokaldia.

Tira, nahikoa da. Hamaika ikusiko dugu oraindik ere. Oraingoz, Tenerife lider. X



Guerrero ez du deskuiduan ere golik egiten denboraldi honetan. Bolada txarra izango da.

TXEMA FERNANDEZ / EFE

■ Bosman legea eta epaileak

Ez dut hitzez hitz idatziko, entzule batek gutxi gora-behera ahoz esanikoa delako, baina hor duzue aspaldiko esaldirik jenialena: «Ea noiz hasten diren epaileekin ere Bosman legea ezartzen». Joxemari Apaalazak esanikoa da Euskadi Irratian. Bere ustez, Rodriguez Martel epailea ez zen batere ongi ibili Athletic-Rayo Vallecano norgehiagokan, eta ironia finez azaldu zuen hori. Eskertzen da, bai, horrelako estiloa gero eta topikoagoa den kirol kazetaritza. Mezuan ere arrazoi du. Izan ere, zergatik ez David Elleray ingelesa, edo Laszlo Vagner hungariarra, edo

motzean jokatu

Pierluigi Pairetto italiarra, edo Marc Batta frantziarra, edo Leslie Mottram eskoziarra, edo Leif Sundell suediarra Espainiko Lehen Mailan —gauza bera beste mailetan— partidua zuzentzen? X

■ Galiziako derbia?

Celta eta Deportivo dira, Compostelarekin batera, Galiziako Lehen Mailan dituen hiru taldeak. Herenegun egun handia izan zen han, denboraldiko lehendabiziko derbia jokatu zelako: Celta-Deportivo. Baina hara non hasieratik aritu ziren bi hamaikakoetan galiziar jo-

kalari bat baino ez zegoen: Deportivo Fran. Lotsagarri samarra, ezta? Erromantizismoaren porrota. Ez ahal zaigu gauza bera pasatuko hemen behintzat. Bidean ote goaz? Realak, bederen, atzerritar pila fitxatzen hasia da —sei dauka!—. Gainera, Arratek eta Urangak euskal jokalariek duten interpretazioak zalea nahas dezake: De Paula Bizkaian jaio eta lau urtetik aurrera Euzkadi maduran jaio eta hezi da, eta euskal jokalaria da Realak fitxatzen duen jokalaria. Histiloles, berriz, Frantziara jaio eta bi urte zutuenetik Hendaian hazi eta hezi, baina

atzerritarra da Athleticentzat; aldiz, Jose Mari Errioxan jaio eta Nafarroan hezi, eta euskal jokalaria da Athleticentzat; eta Bruno Ithurria Ziburun jaio eta 14 urte arte hezi, gero Nantesen egin futbolari, eta euskal jokalaria da Athleticentzat. Hau da katramila. Goazen beste laburrera, hobe izango dugu eta. X

■ Romario edo Luis

Labur-labur: Romariok dio: «Aukeratu: edo Luis Aragones edo ni?». Luisek: «Edo Romario edo ni». Eta nik diot: «Nork fitxatu ditu jokalariek Valenciako edo Luisek edo Roig lehendakariak?». Hau ere katramila da. X

JARDUNALDIKO EMAITZAK

Compostela	3-1	At. Madrid
Logroñes	0-1	Tenerife
Sevilla	1-2	Zaragoza
Valencia	0-1	Realak
Sporting	0-1	Racing
Barcelona	2-1	Espanyol
Valladolid	0-1	Oviedo
Athletic	3-2	Rayo
Extremadura	-	Betis
Real Madrid	3-0	Hercules
Celta	1-1	Deportivo

SAILKAPENA

1. Tenerife	6	+7
2. Barcelona	6	+4
3. Racing	6	+2
4. Realak	6	+2
5. Real Madrid	4	+3
6. Zaragoza	4	+1
7. Betis (*)	3	+3
8. At. Madrid	3	
9. Sporting	3	
10. Valladolid	3	
11. Oviedo	3	-1
12. Athletic	3	-2
13. Hercules	3	-2
14. Compostela	3	-4
15. Deportivo	2	
16. Logroñes	2	-1
17. Celta	2	-2
18. Extremadura (*)	0	-1
19. Espanyol	0	-2
20. Rayo	0	-2
21. Valencia	0	-2
22. Sevilla	0	-2

(*) Partidu bat gutxiago

3. JARDUNALDIA (Irailak 15)

Compostela	◆	Logroñes
Tenerife	◆	Sevilla
Zaragoza	◆	Valencia (ETB1)
Realak	◆	Sporting
Racing	◆	Barcelona
Espanyol	◆	Valladolid
Oviedo	◆	Athletic
Rayo	◆	Extremadura
Betis	◆	Real Madrid (A3)
Hercules	◆	Celta
At. Madrid	◆	Deportivo (C+)

GOLEGILE NAGUSIAK

2: Manel (Logroñes), Stoitskov eta Luis Enrique (Barcelona), Poyet (Zaragoza), Alvaro (Racing), Raul (Real Madrid), Toni (Oviedo), Esnaider (At. Madrid)
1: Carlos Garcia, Ziganda eta Jose Mari (Athletic), Kovacevic eta Imaz (Realak)...

Realak

1: Kovacevic, Imaz

Athletic

1: Carlos Garcia, Ziganda, Jose Mari

Beste euskal jokalariek

PENALTIAK

Jardunaldian	0
Sartu	0
Huts egin	0
Guztira	4 (Bataz beste 3)
Sartu	3 (% 75)
Huts egin	1 (% 25)

TXARTELAK

Jardunaldian	65
Gorriak	3
Horiak	62
Guztira	127 (Bataz beste 63,5)
Gorriak	6 (Bataz beste 3)
Horiak	121 (Bataz beste 60,5)